

Irailak 24, domeka

Akelarre Abesbatza



Akelarre Abesbatza

28 ahots gaztez osatutako ganbera-abesbatza da. Xabier M. Aretxabaletaren zuzendaritzapeko ibilbidean hasieratik, 2018ko abenduan.

Euskal Herriko 19 eta 33 urte bitarteko gazteen partaidetzarekin, guztiak ahots eta koro esperientzia handikoak. Gazteen artean musika korala sustatzeko helburuarekin sortu zen. Horregatik, artista gazteekin lankidetzan aritu izan da beti bere proiektuetan, bai interprete zein konposatzaileekin. Horrez gain, beti izan dute helburu musika korala formatu berrietan eskaintzea, ikusleentzat esperientzia erakargarriagoa izan dadin.

Akelarre abesbatzak errepertorio zabala eskaintzen du: musika klasikotik hasi eta garaikideraino; euskal folklore zein atzerriko herrialdeko folklore lanak; a capella abestutako zein instrumentuz lagundutako obrak, baita zenbait konposatzaile gazteek Akelarrerentzat espreski sortutako lanak ere.

Ibilbidea denboran laburra izan arren, kontzertu ugari eskaini dituzte. Azpimarratu ditzakegun batzuk: *"Deiadarra"* kontzertua; *Ojos del Mundo* fundaziorako ongintza kontzertua; G. Fauré-ren *Requiem*a, Mikel Ansola organistarekin batera Gipuzkoako Organo Erromantikoaren Nazioarteko XXI. zikloan zein XVII. Diego de Amezua Organo Jaialdian interpretatu zutena; edota Miramongo *Matiné*etan interpretatutako Benjamin Britten-en *A Ceremony of Carols* kontzertua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko arpista den Iván Bragadorekin batera.

EGITARAUA

Maitia nun zira	J. Uruñuela
O nata lux	T. Tallis
Beti Quorum Via	C. V. Stanford
Donostiaco damachoak	J. Bello-Portu
Haizeak emandako nahiak	J. Saenz
Lob des frülings	F. Mendelssohn
O lux beata Trinitas	A. Makor
Sleep	E. Whitacre
The sounding sea	E. Barnum
Unclouded day	S. Kirchner
Joan del Riu	M. Oltra
Aritz Adarrean-Katalin	J. Ezkurra